



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de octubre de 2017

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK 2017-2020 BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN PLANA ONARTU DU 26 EKARPEN ERANTSI ONDOREN

- Ekarpentak biltzeko prozesuan 26 proposamen aintzat hartu dira eta 63 aldaketa erantsi dira
- Plan honen helburu estrategikoa gizartea elkartzea da. Gizarte demokratiko baten balio gorenaren adierazgarri da: *bizikidetza adostua* lortzea
- 2020. urtera arteko jarduketa integral baten proiektu bat da, bai ETaren indarkeriaren amaieraren agendari bai bizikidetzaren aldeko erronka berriei erantzuten diena
- Jarduketa-programak 14 ekimen hartzen ditu barnean, hiru agertokitan egituratuta: iragana, oraina eta etorkizuna

Gobernu Kontseiluak “2017-2020 Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana” onartu du. Bertan, ekarpentak biltzeko prozesuaren ondoren, 26 proposamen erantsi ditu. Plan honen helburu estrategikoa “Gizartea elkartzea” da, giza eskubideen eta hauen oinarri den giza duintasunaren goi-balioaren inguruko adostasunean oinarrituta. Dokumentuan hiru agertokitan (iragana, oraina eta etorkizuna) egituratutako jarduketa-programa bat jaso da. Bertan 14 ekimen barne hartu dira, eta ekimen horien bitartez ETaren indarkeriaren amaieraren agendari eta bizikidetzaren aldeko erronka berriei erantzun nahi zaie.

Apirilaren 4an Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak plan honen proposamena aurkeztu zuen. Une hartan, Legebiltzarreko taldeek, elkarte-sareak eta herritarrek plan horretarako ekarpentak egiteko hiru hilabeteko epea zabaldu zen.

Prozesu horretan, Arabako Foru Aldundiak, Legebiltzarreko taldeek, AVT eta COVITE biktimen elkarteek, Fernando Buesa eta Egari Zor fundazioek, Elkarten Foroak, eta, Eusko Jaurlaritzaren barruan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak planaren inguruan egindako ohar eta proposamenez osatutako **10 dokumentu** erregistratu dira.

Jasotako ekarpen gehienek Planaren orientabide nagusiaren ildotik doazen izaera eraikitzailea eta positiboa dute. **Prozesu honen amaieran 26 proposamen hartu dira kontuan eta 63 aldaketa egin dira.**

ALDAKETAK

Aldaketen artean bi azpimarratu behar dira: bata indarkeriaren amaieraren agendari loturik dago eta, bestea, bizikidetzaren aldeko erronka berrien agendari.

- Bi aldaketa horietako **lehenengoa** AVT elkarteak egindako ekarpenari erantzunez aurkeztu da, zeharka Covite elkarteak, Fernando Buesa Fundazioak, PP alderdiak eta Egari Zor Fundazioak adierazitako kezka

batzuei ere erantzuten badie ere. AVT elkarteak aurkeztutako dokumentuak sarrera bat eta hainbat ekarpen puntual zituen. Eusko Jaurlaritzak ekarpen horiek jaso eta kontuan hartu ditu. Horrela, guztiei erantzun globala eman die, Planaren sarreran IV. atal berria sartuz.

Atal berri hori ezarri da, jatorri ezberdineko biktimen politiken tratamenduan Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako konpromisoak esplizituki argitzeko. Konpromisoak bitan labur daitezke: alde batetik, “giza eskubideen urraketen biktimen arteko berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioarekin” konpromisoa; eta bestetik, “*terrorismoa legitimotzat hartzeko edozein justifikazio modu*” edo “*biktima batzuen eta besteen artean biktimizazio-arrazoien inguruan legitimazio-parekatzea*” arbuizatzeko konpromisoa.

- **Bigarren** aldaketa azpimarragarria planak berak “bizikidetzaren aldeko erronka berrien” agenda deitzen duenarekin loturik dago. Jasotako ekarpenak oro har hartuta, azpimarratu behar da, duela lau urte ez bezala, oraingoan iradokizun eta proposamen asko esparru honetara zuzendu direla. Era horretan, ekarpenak egin dituzten erakunde eta pertsona batzuek Nazio Batuen garapen iraunkorrerako 2030 Agendaren esparru berriarekin berriazko konpromisoa jasotzeko iradoki dute.

Iradokizun hori kontuan hartu da eta planaren sarreran eta “2.4.3. Etorkizuna. Bizikidetzaren erronka berriak” puntuan eta “2.5.7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura. Erronka estrategikoa” puntuetan jaso da. Azken batean, Eusko Jaurlaritzak berretsi du bat datorrela ondoko alderdi hauekin: *Europa 2020, hazkuntza zentzudun, iraunkor eta integratzaileko estrategia europarrarekin, eta gobernu-programaren osotasunean Eusko Jaurlaritza konprometituta dagoen Agenda 2030en Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Arlo honetan, eta oso modu berezian, 16. helburuarekin.*

Aurrekoarekin loturik, plan hau *Bake eta Bizikidetzaren Plana* deitzetik *Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana* deitzera pasatu da. Giza eskubideei lotuta dagoen bizikidetzaren xedea hauxe da: aldatzen ari den eta ziurgabetasunez inguratua dagoen mundu batean sortzen ari diren erronka horietara hobeto egokitzea, oraindik gainditzeko dauden erronkak alde batera utzi gabe.

Gaur egungo testuinguruan eta bizikidetzaren ikuspegitik, oraindik burutu ez diren eginkizun garrantzitsu hauek azpimarratu dira planean: indarkeriaren amaiera ordenatua (ETA desagertzea/desegitea, eta iragana argitzea eta haren inguruko gogoeta kritikoa egitea), biktima guztien errekonozimendua eta ordaina ematea, iraganaren memoria kritikoa, kartzela-politika, giza eskubideen erronka berriak...

Terrorismoaren amaiera iragarri zenetik sei urte igaro dira. ETAREN desarmaea jada lortu den plan honen helburuetako bat da. Oraindik iraganari buruzko zauriak itxi, gaur egun oraindik badauden arazoak konpondu eta etorkizunari begira bizikidetzaren demokratikoaren kultura sendotu behar dira. Gaur onartu dena bezalako plan estrategikoa bat etorkizun hobearen eratzeko laguntzeko beharrezko tresna da.

Plan honen helburu estrategikoa gizartea elkartzea da. Gizarte demokratiko baten balio gorena irudikatzen du: *bizikidetza adostua* lortzea. Gizartea elkartzea, giza eskubideen eta hauen oinarri den giza duintasunaren goibailioaren inguruko adostasunean oinarritzen da. Memoria zainduz elkarrekin bizitzeari egiten dio erreferentzia, iraganean egin gabe geratu ziren gauzen agendari erreparatzen diogunean, eta bizikidetza solidarioari, azaleratzen ari diren erronkei erreparatzen diegunean.

PLANAREN EGITURA

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana **hiru atal nagusitan** egituratzen da. Aurrenekoak Esparru Orokorra izenburua darama, eta bertan diagnostikoa egiten da eta oinarriak ezartzen dira. Bigarren atalaren izenburua *Oinarrizko akordiorako tresnak* da, eta bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan adostasuna lortzeko bidea partekatzeko pentsatutako printzipio eta proposamenen katalogoa ageri da bertan. Planaren hirugarren atala jarduketa-programari buruzkoa da. Ekintza zehatz bihurtzen diren **14 ekimen biltzen ditu**, operatiboak diren beste bi ekimenekin batera. 14 ekimen horiek hiru agertokitan antolatuta daude: iragana, oraina eta etorkizuna.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKAL HERRITARREK IA 70 MILIOI EURO ORDAINDU DIZKIETE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI, “NIRE ORDAINKETA”REN BIDEZ, EUSKO JAURLARITZAREN DOAKO ONLINE ZERBITZUA

- Aurten, euskal herritarrek 335.184 ordainketa egin dituzte, gehienak isunak eta trafiko-tasak, eta ondoren, [Bizilagun](#) etxebizitzak alokatzeko programa berriaren fidantzen gordailuak eta Euskadiko hizkuntza-eskola ofizialen matrikulak
- Erregistratutako ordainketa-kopuru handiena Euskal Administrazio Publikoarekiko izapideena izan da, baina zenbateko gehienekoak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginikoak izan dira
- Edozein lekutatik, gailutatik eta edozein ordutan, herritarrek beren izapideak atxikitako 190 administrazio publikoekin egin ditzakete, doan eta segurtasun osoz

Eusko Jaurlaritzak martxan jarri du mugikorraren eta tabletaren bertsiora egokitutako diseinua, [“Nire ordainketa”](#) zerbitzuaren *“Responsive Design”*. Edozein gailutatik dago eskuragarri, edozein ordutan eta edozein lekutatik; [“Nire ordainketa”](#) onlineko ordainketa-pasarela da, herritarrek zerbitzu horri atxikitako edozein euskal administrazio publikoekin egin beharreko izapideak ordaintzeko. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu seguru eta doako hau administrazio elektronikoa sustatzeko modua da, eta zerbitzu publikoa modernizatzearen aldeko apustua egiten du, herritarrei erantzun eraginkorra emateko, inolako leihatilatara joan gabe, izapideak ordaintzeko aukera izan dezaten.

Aurten, orain arte, [“Nire ordainketa”](#) zerbitzuak **335.184 ordainketa izapidetu ditu, guztira, 69.446.334,43 euro**. Ordainketa gehienak tasak eta trafikoko isunak ordaintzeko izan dira. Gero, etxebizitzak alokatzeko Eusko Jaurlaritzaren [Bizilagun](#) zerbitzu berriaren fidantzen gordailuak, eta Euskadiko hizkuntza-eskola ofizialetako matrikulak:

2017KO ORDAINKETA NAGUSIAK

(Ordainketa-mota kopuruaren eta zenbatekoaren arabera)

	ORDAINKETA KOPURUA	ORDAINKETEN ZENBATEKOA
TRAFIKOA (TASAK ETA ISUNAK)	51.678	4.227.047,49€
BIZILAGUN GORDAILUAK	3.592	3.266.347,44€
HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO MATRIKULA	29.244	1.703.698,11€
EGA AZTERKETARAKO TASAK	9.770	219.408,00€
GAZTE TXARTELA	4.773	28.638,00€

IKASKETA TITULUAK EMATEA	3.160	116.865,23€
INDUSTRIA, ENERGIA ETA MEATZE TASAK	2.198	67.660,72€
EUSKO JAURLARITZAK EDITATUTAKO ARGITALPENAK	1.931	24.793,39€
URRUTIKO LH-KO MATRIKULAK	1.121	55.290,00€
ARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZAK	859	117.907,37€
JOKOAK ETA IKUSKIZUNAK	759	28.176,09€
EHAAn IRAGARKIAK ARGITARATZEAGATIKO TASAK	500	191.551,19€
LH-KO AZTERKETARAKO ESKUBIDEAK	476	8.352,00€
ZEHAPENAK ETA SEGURTASUN PRIBATUA ETA HERRITARREN SEGURTASUNA	161	47.463,20€
TASAK: JABETZA INTELEKTUALEKO LURRALDE ERREGISTROKO INSKRIPZIOA	106	525,56€

Aurten, orain arte, erregistratutako ordainketa-kopuru handiena Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzuekiko izapideena izan da, baina zenbateko gehienekoak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginikoak izan dira:

2017KO ORDAINKETAK

(Ordainketa-mota zenbatekoaren eta administrazio publikoaren arabera)

	ORDAINKETA KOPURUA	ORDAINKETEN ZENBATEKOA
EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	164.119	13.661.499,24€
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	8.216	8.532.532,71€
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	17.389	26.603.152,63€
ARABAKO FORU ALDUNDIA	13.979	4.952.793,72€
BIZKAIKO TOKI ERAKUNDEAK	41.006	6.252.582,90€
GIPUZKOAKO TOKI ERAKUNDEAK	19.166	2.535.355,84€
ARABAKO TOKI ERAKUNDEAK	27.206	2.220.174,61€
BESTE ERAKUNDE BATZUK	44.103	4.688.242,78€
GUZTIRA	335.184	69.446.334,43€

ATXIKITAKO INSTITUZIOAK ETA BANKU ERAKUNDEAK

Eusko Jaurlaritzak sustatutako ordainketen plataforma honi atxikitako 190 erakunde publikoak honako hauek dira:

	ERAKUNDE IGORLEEN KOP.
EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	8
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	1
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	2
ARABAKO FORU ALDUNDIA	3
BIZKAIKO TOKI ERAKUNDEAK	37
GIPUZKOAKO TOKI ERAKUNDEAK	98
ARABAKO TOKI ERAKUNDEAK	25
BESTE ERAKUNDE BATZUK	16

Euskadiko finantza-erakunde nagusiak ordainketa-pasarelari daude atxikita; horrela, ordainketak horien bidez egiten dira: Kutxabank, Caixabank, BBVA, Bankia, Banco Popular, Laboral Kutxa, Banco Santander, Sabadell Gipuzcoano, Bankoa Crédit Agricole, eta Caja Rural de Navarra. Erakunde horietako batean ere bezero ez direnek ordainketak Visa, Mastercard eta Maestro txartelen bidez egiten dituzte. Urteko lehen hilabete hauetan, ordainketa gehienak Kutxabanken bidez egin dira: guztira, 133.859 ordainketa; 32.037.879,87 euro.

NIRE ORDAINKETA

[“Nire ordainketa”](#) zerbitzua 2000n sortu zen. Estatuan, ordainketarako plataforma aitzindaria izan zen. Harrezkero, erabilera areagotu egin da, bai administrazio publikoen kopuruari dagokionez, bai atxikitako banku-erakundeen kopuruari dagokionez. Iazko aldi berarekin erkatuta, [“Nire ordainketa”](#) zerbitzuaren erabilera ia %20 hazi da.

GUZTIRA	2016	2017	HAZKUNTZA
Ordainketa kopurua	277.620	33.5184	%17
Ordainketen zenbatekoa	56.179.414,69 €	69.446.334,43 €	%19

Ekonomiaren garapen eta Azpiegiturak

**ZAZPI MILIOI BAINO GEHIAGO EUSKADIKO LANDA GUNEETAN
ENPRESAK SORTU ETA MODERNIZATZEKO, KONTRATAZIOA
BULTZATZEKO, AZPIEGITURAK HOBETZEKO ETA ETXEBIZITZA
ESKURATZEA ERRAZTEKO**

- **Aplikazio eremuan sartzen dira Euskal Herriko Leader udalerrri guztiak, hau da, 122 udalerrri, non 93.000 biztanletik gora bizi diren**

LEADER gunean sartzen diren udalerrriak bultzatu eta garatzeko eta haien dibertsifikazio ekonomia lortzeko 2017an emango diren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken kontseilu bileran. Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 aldirako Programaren barruan Garapen Lokal Partehartzailerako Estrategian finkatu diren helburuak betetzeko, zazpi milioi euro baino gehiago dute guztira, enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko, besteren konturako kontratazioak egiteko, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuak hobetzeko eta etxebizitza eskuratzea errazteko.

Diru laguntza ez-itzulgarritzat jotzen dira laguntza horiek, eta onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, izaera juridikoa edukita zein ez edo zein eratako unitate ekonomiko edo ondare berezia, izaera juridikoa eduki ez arren aurreikusitako proiektuak edo jarduerak egin baditzaizkete. Aplikazio eremu geografikoan sartzen dira Leader gunean aukeratutako udalerrri guztiak (guztira, 122 udalerrri, non 93.000 pertsona baino gehiago bizi diren), eta proiektuak 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arte gauzatu ahal izango dira.

Lagunduko diren jarduerak

Hauek dira deialdi honen xede diren lerroak hauek:

- Enpresen sorrera (start up) nekazaritzakoak ez diren jardueretarako
- Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsioak.
- Besteren konturako kontratazioa.
- Azpiegiturak, oinarrizko zerbitzuak eta udalerrriak berritzea.
- Etxebizitza eskuratzea.

Baliabide ekonomikoak

“FEADER” Landa Garapenerako Nekazaritza Fondo Europarraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira

laguntzak, 2015-2020 Euskal Herriko Landa Garapenerako Programan ezarritakoaren arabera.

Eskatzaileek dokumentazio orokorra eta laguntza lerro bakoitzerako dokumentazio berezia aurkeztu beharko dituzte, bi aletan, «MENDINET Landa Garapenerako Aurrerapenerako Elkartea»-n, Toki Ekintzarako Taldea baita, agindu arautzaileak zehazten duenaren arabera. Eskaerak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitzen den egunetik hasita; halere, epe hori baino lehen aurkeztutako eskaerak ere onartuko dira, baldin eta deialdiaren ekitaldiaren barruan aurkezten badira.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINNTZA OROKORRAREN, ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN ETA EAE-REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEKO, INFORMAZIOA TRUKATZEARI BURUZKOA

Eusko Jaurlaritzak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, baimena eman du Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta EAEn arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, informazioa trukatzeari buruzkoa.

2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legeak azken xedapenetako hogeita hamazazpigarrenean ezartzen du hiru hilko epean, indarrean sartzen denetik, lankidetzaren hitzarmena formalizatuko dela Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta EAEn artean, Gizarte Segurantzako kontingentzia arruntan eta autonomia-erkidego honi ordaindu behar zaizkion lanbide-prestakuntzako kuoten hobariak finantzatzeari buruzko informazio zehatza behar bezala bidaltzeko.

Hitzarmenaren helburu diren datuek, behintzat, informazioa izango dute bereizita, hobari-kolektibo bakoitzeko, eta langile eta enpresak identifikatuta egongo dira, bai eta beren kotizazio-oinarriak eta enplegurako suspertze-programen arabera aplikatzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegoari finantzatu beharreko kenkariak ere.

Era berean, hitzarmenaren helburu diren datuek, lanbide-prestakuntzako kuotak direla eta, enpresek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan finkatutako lan-zentroetan horietarako aplikatzen dituzten hobariak jasoko dituzte.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 75.000 EURO BIDERATU DITU EUSKADIKO ELIKAGAIEN BANKUKO FEDERAZIORAKO

Eusko Jaurlaritzak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, gaur Euskadiko Elikagaien Bankuko Federazioarentzako 75.000 euroko zuzeneko diru-laguntza ematea onetsi du, gizarte-zerbitzuen eremuan aurreikusitako jarduketak finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona ahulenentzako Europako Laguntzaren Funtseko (FEAD) programa garatzeko.

Euskadiko Elikagaien Bankuko Federazioa Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuek, erkidego honetan FEAD programa gauzatzeko eta kudeatzeko arduradunek osatzen dute.

Hezkuntza

175.000 EURO DOKTORETZA-AURREKO EGONALDIETARAKO DIRU-LAGUNTZETAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du, Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko Programa aplikatzen den zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko diru-laguntzak deitzen dituen agindua.

175.000 euroko diru-kopurua duen deialdi hau gorago aipaturiko Doktoretza-aurreko Programaren onuradun diren ikertzaileei zuzendua da. Ikertzaile hauek lan-kontratu bidezko harremana dute ikerketa zentroekin (unibertsitate edo ikerketa erakundeak, I+G+b-n ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak). Ikerketa zentro horiek Doktoretza-aurreko programarako aplikazio-zentrotzat hartzen dira. Hala ere, sarri askotan, doktoretza-aurreko ikertzaileek aplikazio-zentroa ez den beste zentro batean egin ohi dituzte unean-uneko egonaldiak, euren ikerketa-lanaren garapenak hala eskatuta.

Horrela bada Hezkuntza Sailak diru-laguntza deialdi hau deitzen du, lekualdatzeak edo aldi baterako egoitza-aldaketak egin behar izaten dituzten doktoretza-aurreko ikertzaile horiei osagarri ekonomikoak eskaintzeko helburuz. Egonaldiak unibertsitateetan, ikerketa edo garapen teknologikoko zentroetan eta I + G +b-ko jarduera duten enpresetan egin ahal izango dira, atzerriko zein estatu mailakoetan, betiere aplikazio-zentroarena ez den herri batean kokatuta badaude eta diru-laguntza ematea justifikatuko duen aldi baterako egoitza-aldaketa badakar.

Egonaldien helburua izango da ikertzaileek beren ikerketa zientifiko eta teknikoan izan beharreko prestakuntza hobetzea eta, horretarako, jarduera hauek egitea: ikerketa-jarduerak, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, edo gauzatzen ari den tesi-proiektuaren testuinguruan, prestakuntza zientifikoaren onerako izango den eta tesia garatzeko prozesua sustatuko duen beste edozein ikerketa-jarduera.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL PLAN DE CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS 2017-2020 CON LA INCORPORACIÓN DE 26 APORTACIONES

- En el proceso de recogida de aportaciones han sido tomadas en consideración 26 propuestas y se han incorporado 63 cambios
- El Encuentro Social es el objetivo estratégico de este plan. Representa el más alto valor de una sociedad democrática: alcanzar una *convivencia conciliada*
- El plan proyecta una actuación integral hasta 2020 que responde tanto a la agenda del final de la violencia de ETA como a los retos emergentes de la convivencia
- Su programa de actuación incluye 14 iniciativas, estructuradas en tres escenarios: pasado, presente y futuro

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el “Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-20” incorporando en él 26 propuestas fruto de un proceso de recogida de aportaciones. El objetivo estratégico de este plan es el “Encuentro Social” basado en el consenso sobre el valor superior de los derechos humanos y de la dignidad humana que los fundamenta. En el documento se recoge un programa de actuación estructurado en tres escenarios (pasado, presente y futuro) e incluye 14 iniciativas, a través de las cuales se pretende dar respuesta a la agenda del final de la violencia de ETA como a los retos emergentes de la convivencia.

El pasado 4 de abril, la Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación presentó la propuesta de este plan. A partir de ese momento, quedó abierto un periodo de tres meses para la presentación de aportaciones al mismo por parte de los grupos parlamentarios, la red asociativa y la propia ciudadanía.

En este proceso se han registrado **10 documentos** de observaciones y propuestas al Plan por parte de la Diputación Foral de Álava, grupos parlamentarios, las asociaciones de víctimas AVT y COVITE; las fundaciones Fernando Buesa y Egari Zor; el Foro de Asociaciones; y dentro del Gobierno Vasco, la Secretaría General de Acción Exterior.

La gran mayoría de las aportaciones recibidas tiene un carácter constructivo y positivo que se sitúa en línea con la orientación general del Plan. **Al final de este proceso han sido tomadas en consideración 26 propuestas y se han incorporado 63 cambios.**

MODIFICACIONES

Entre las modificaciones más significativas cabe destacar dos: una de ellas tiene que ver con la agenda del final de la violencia; y la otra con la agenda de los retos emergentes de la convivencia.

- **La primera** de estas dos modificaciones se presenta como respuesta a la aportación hecha por la AVT, aunque de un modo indirecto también responde a algunas de las preocupaciones que han expresado Covite, la Fundación Fernando Buesa, el PP o la Fundación Egiari Zor. La AVT presentó un documento con una introducción y distintas aportaciones puntuales. El Gobierno Vasco ha atendido y tomado en consideración estas aportaciones dando una respuesta global a todas ellas, mediante la inclusión de un nuevo apartado IV en la introducción del Plan.

Este nuevo apartado se presenta como un reflejo explícito de clarificación de los compromisos que asume el Gobierno Vasco en el tratamiento de las políticas de víctimas de signo diferente. Pueden resumirse en dos: por un lado, un compromiso con “el principio de igualdad y no discriminación entre víctimas de vulneraciones de derechos humanos”; por otro, el compromiso de rechazo de *“cualquier forma de justificación legitimadora del terrorismo”, o “equiparación legitimadora sobre las causas de victimación entre unas y otras víctimas”*

- **La segunda** modificación significativa tiene que ver con lo que el propio plan denomina “agenda de los retos emergentes de la convivencia”. En el conjunto de las aportaciones recibidas debe destacarse que, a diferencia de lo que ocurrió hace cuatro años, un buen número de las sugerencias y propuestas se han dirigido a este ámbito. De este modo, varias de las entidades y personas que han realizado aportaciones han sugerido recoger de forma expresa el compromiso con el nuevo marco de la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible de las Naciones Unidas.

Esta sugerencia se ha tomado en consideración y se ha incorporado en la introducción del plan y en los puntos “2.4.3. Futuro. Los nuevos retos de la convivencia” y en el punto “2.5.7. Cultura de convivencia y derechos humanos. Reto estratégico”. En definitiva, el Gobierno vasco reafirma su alineamiento *“con la estrategia europea para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador, Europa 2020, y con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030 con los que el Gobierno Vasco está comprometido en el conjunto de su programa de gobierno. En esta área y de manera muy especial con el objetivo 16.*

Con respecto al anterior, este plan pasa de denominarse Plan de *Paz y Convivencia*, a Plan de *Convivencia y Derechos Humanos*. La convivencia vinculada a los derechos humanos representa una formulación que, sin olvidar los retos pendientes, busca una mejor adaptación a los desafíos emergentes en un mundo cambiante y rodeado de incertidumbres.

En el contexto actual y desde el punto de vista de la convivencia, el plan destaca las tareas relevantes y pendientes: el final ordenado de la violencia (desaparición-disolución de ETA, y la clarificación y reflexión crítica sobre el pasado), el reconocimiento y reparación de todas las víctimas, la memoria

crítica del pasado, la política penitenciaria, los nuevos retos de los derechos humanos...

Han pasado seis años desde el anuncio del final del terrorismo. El desarme de ETA es ya un objetivo de este plan que ha sido logrado. Es preciso todavía cerrar heridas sobre el pasado, resolver problemas pendientes en el presente y consolidar una cultura de convivencia democrática para el futuro. Un plan estratégico como el que hoy ha sido aprobado es una herramienta necesaria para contribuir a un futuro mejor.

El Encuentro Social es el objetivo estratégico de este plan. Representa el más alto valor de una sociedad democrática: alcanzar una *convivencia conciliada*. El Encuentro social se basa en el consenso sobre el valor superior de los derechos humanos y de la dignidad humana que los fundamenta. Hace referencia a una convivencia con memoria cuando mira a la agenda pendiente del pasado, y a una convivencia solidaria cuando mira a los retos emergentes.

ESTRUCTURA DEL PLAN

El Plan de Convivencia y Derechos Humanos se estructura en **tres grandes apartados**. En primer lugar, el Marco General que se configura con el diagnóstico y las bases. La segunda parte se titula *Herramientas de acuerdo básico* y presenta un catálogo de principios y propuestas pensados para compartir un itinerario de consenso sobre convivencia y derechos humanos. La parte tercera del plan se adentra en el programa de actuación que **incluye 14 iniciativas** traducidas en acciones concretas, junto a otras dos de carácter operativo. Estas 14 iniciativas están organizadas en tres escenarios: pasado, presente y futuro.

Gobernanza Pública y Autogobierno

LA CIUDADANÍA VASCA HA ABONADO CASI 70 MILLONES DE EUROS A LAS ADMINISTRACIONES PUBLICAS A TRAVÉS DE “MI PAGO”, EL SERVICIO ONLINE GRATUITO DEL GOBIERNO VASCO

- En lo que va de año, la ciudadanía vasca ha realizado 335.184 pagos, la mayoría multas y tasas de tráfico, seguido de depósitos de fianzas del nuevo programa de alquiler de viviendas, [Bizilagun](#), y de las matrículas de las escuelas oficiales de idiomas de Euskadi
- El mayor número de pagos registrados ha correspondido a trámites con la Administración Pública Vasca, pero los de mayor importe han sido con la Diputación Foral de Gipuzkoa
- Desde cualquier lugar, dispositivo y a cualquier hora, la ciudadanía puede abonar sus trámites con las 190 administraciones públicas adheridas, de una manera gratuita y completamente segura

El Gobierno Vasco ha puesto en marcha el diseño adaptado a versión móvil y tablet, el “*Responsive Design*”, del servicio “[Mi Pago](#)”. Disponible desde cualquier dispositivo, a cualquier hora, y desde cualquier lugar, “[Mi Pago](#)” es una pasarela para abonar, online, los trámites que la ciudadanía deba realizar con cualquiera de las administraciones públicas vascas adheridas a este servicio. Este servicio, seguro y gratuito del Gobierno Vasco, es un impulso a la administración electrónica y una apuesta por la modernización del servicio público para dar una respuesta eficaz a la ciudadanía, que puede abonar sus trámites sin acudir a ninguna ventanilla.

En lo que va de año, “[Mi Pago](#)” ha tramitado **335.184 pagos, que han sumado 69.446.334,43 euros**. La mayor parte de los pagos han correspondido a abonos de tasas y multas de tráfico. Después, los depósitos de las fianzas del nuevo servicio de alquiler de viviendas del Gobierno Vasco, [Bizilagun](#), y las matrículas en las escuelas oficiales de idiomas de Euskadi:

PRINCIPALES PAGOS 2017

(Tipo de pago por número y por importe)

	NÚMERO PAGOS	IMPORTE PAGOS
TRÁFICO (TASAS Y MULTAS)	51.678	4.227.047,49€
DEPÓSITOS BIZILAGUN	3.592	3.266.347,44€
MATRÍCULA ESCUELA OFICIAL IDIOMAS	29.244	1.703.698,11€
TASAS EXÁMENES EGA	9.770	219.408,00€
GAZTE TXARTELA	4.773	28.638,00€

EXPEDICIÓN TÍTULOS ACADÉMICOS	3.160	116.865,23€
TASAS INDUSTRIA, ENERGIA Y MINAS	2.198	67.660,72€
PUBLICACIONES EDITADAS POR EL GOBIERNO VASCO	1.931	24.793,39€
MATRÍCULAS FP A DISTANCIA	1.121	55.290,00€
ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS Y DEPORTIVAS	859	117.907,37€
JUEGOS Y ESPECTÁCULOS	759	28.176,09€
TASAS POR INSERCIÓN DE ANUNCIOS EN BOPV	500	191.551,19€
DERECHOS EXAMEN FP	476	8.352,00€
SANCIONES DE SEGURIDAD PRIVADA Y CIUDADANA	161	47.463,20€
TASAS: INSCRIPCIÓN REGISTRO TERRITORIAL DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL	106	525,56€

En lo que va de año, el mayor número de pagos registrados ha correspondido a trámites ciudadanos de servicios de la Administración Pública Vasca, pero el mayor importe de los pagos, han sido trámites de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

PAGOS 2017

(Tipo de pago por importe y por administración pública)

	NÚMERO PAGOS	IMPORTE PAGOS
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA VASCA	164.119	13.661.499,24€
DIPUTACIÓN FORAL BIZKAIA	8.216	8.532.532,71€
DIPUTACIÓN FORAL GIPUZKOA	17.389	26.603.152,63€
DIPUTACIÓN FORAL ÁLAVA	13.979	4.952.793,72€
ENTIDADES LOCALES BIZKAIA	41.006	6.252.582,90€
ENTIDADES LOCALES GIPUZKOA	19.166	2.535.355,84€
ENTIDADES LOCALES ÁLAVA	27.206	2.220.174,61€
OTRAS ENTIDADES	44.103	4.688.242,78€
TOTAL	335.184	69.446.334,43€

INSTITUCIONES Y ENTIDADES BANCARIAS ADHERIDAS

Son 190 entidades públicas las adheridas a esta plataforma de pagos impulsada por el Gobierno Vasco:

	Nº ENTIDADES EMISORAS
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA VASCA	8
DIPUTACIÓN FORAL BIZKAIA	1
DIPUTACIÓN FORAL GIPUZKOA	2
DIPUTACIÓN FORAL ÁLAVA	3
ENTIDADES LOCALES BIZKAIA	37
ENTIDADES LOCALES GIPUZKOA	98
ENTIDADES LOCALES ÁLAVA	25
OTRAS ENTIDADES	16

Las principales entidades financieras de Euskadi están adheridas a la pasarela de pagos, de manera que todos los abonos se realizan a través de ellas: Kutxabank, Caixabank, BBVA, Bankia, Banco Popular, Laboral Kutxa, Banco Santander, Sabadell Guipuzcoano, Bankoa Crédit Agricole, y Caja Rural de Navarra. Las personas que no son clientes de ninguna de estas entidades realizan los pagos mediante las tarjetas de Visa, Mastercard y Maestro. En estos diez primeros meses del año, la mayoría de los pagos se han realizado a través de Kutxabank: en total 133.859 pagos que ascienden a 32.037.879,87 euros.

MI PAGO

El servicio [“Mi Pago”](#) nació en 2000. Fue una plataforma de pagos pionera en el Estado. Desde entonces, su uso ha ido en aumento tanto en número de administraciones públicas como en número de entidades bancarias adheridas. Comparado con el mismo periodo del año pasado, el uso del servicio [“Mi Pago”](#) ha registrado un aumento cercano al 20%.

TOTALES	2016	2017	INCREMENTO
Nº Pagos	277.620	33.5184	17%
Importe de Pagos	56.179.414,69 €	69.446.334,43 €	19%

Desarrollo Económico e Infraestructuras

MÁS DE SIETE MILLONES PARA CREAR Y MODERNIZAR EMPRESAS, FOMENTAR LA CONTRATACIÓN, MEJORAR INFRAESTRUCTURAS Y FACILITAR EL ACCESO A LA VIVIENDA EN LAS ZONAS RURALES DE EUSKADI

- **El ámbito de aplicación comprende a todos los municipios Leader del País Vasco, un total de 122 en los que habitan más de 93.000 personas**

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado en su última reunión la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan para 2017 ayudas destinadas a la promoción, desarrollo y diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona LEADER. Con el objetivo de cumplir con los objetivos fijados en la Estrategia de Desarrollo Local Participativo en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020, cuentan con un montante global superior a los siete millones de euros, destinado a la creación, ampliación y modernización de empresas, la contratación por cuenta ajena, la creación y mejora de infraestructuras y servicios básicos y la mejora del acceso a la vivienda.

Con la consideración de subvenciones no reintegrables, podrán beneficiarse de estas ayudas las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, con o sin personalidad jurídica o cualquier tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos y actividades previstos. El ámbito geográfico de aplicación comprenderá todos los municipios seleccionados para la zona Leader (un total de 122 en los que habitan más de 93.000 personas) y el plazo de ejecución de los proyectos se podrá extender desde el 1 de enero de 2017 hasta el 31 de diciembre de 2018.

Actividades objeto de ayuda

Las líneas objeto de esta convocatoria son:

- Creación de empresas (start up) para actividades no agrícolas.
- Inversiones en la creación, ampliación y modernización de empresas.
- Contratación por cuenta ajena.
- Infraestructuras, servicios básicos y renovación de municipios.
- Acceso a la vivienda.

Recursos Económicos

Las ayudas serán cofinanciadas con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural “FEADER” y a los Presupuestos Generales de la Comunidad

Autónoma de Euskadi, conforme a lo dispuesto en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020.

Las personas solicitantes deberán presentar, por duplicado, ante el Grupo de Acción Local «Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural MENDINET» la documentación genérica y la específica para cada línea de ayuda, según se detalla en la orden reguladora. El plazo de presentación de las solicitudes será de quince días a contar desde el día siguiente al de la publicación de la orden en el Boletín Oficial del País Vasco, aunque se admitirán las solicitudes presentadas antes de dicho plazo pero dentro del ejercicio de la convocatoria.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL, EL SERVICIO PÚBLICO DE EMPLEO ESTATAL Y LA CAPV SOBRE INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN

El Gobierno Vasco, a propuesta de Beatriz Artolazabal, Consejera de Empleo y Políticas Sociales, ha autorizado la suscripción del convenio de colaboración entre la Tesorería General de la Seguridad Social, el Servicio Público de Empleo Estatal y la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre intercambio de información.

La Ley 3/2017, de 27 de junio de Presupuestos Generales del Estado en su Disposición Final Trigésima Séptima de para el año 2017 determina que en el plazo de tres meses desde la entrada en vigor de la misma, se formalizará un convenio de colaboración entre la Tesorería General de la Seguridad Social y el Servicio Público de Empleo Estatal con la Comunidad Autónoma del País Vasco a los efectos de la materialización de la oportuna remisión de la información precisa en relación a la financiación de las bonificaciones de las cuotas de contingencias comunes de la Seguridad Social y de las cuotas de formación profesional que corresponde abonar a esta Comunidad Autónoma.

Los datos objeto del convenio contendrán, al menos, información desagregada por cada uno de los colectivos de bonificación con identificación de los trabajadores y empresas, así como sus respectivas bases de cotización y las deducciones que se apliquen de acuerdo con los programas de incentivos al empleo y que corresponde financiar a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Asimismo, los datos objeto del convenio contendrán, en relación con las cuotas de formación profesional, las bonificaciones en las mismas que se aplican las empresas en los centros de trabajo radicados en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Empleo y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO DEDICA 75.000 EUROS A LA FEDERACIÓN DE BANCOS DE ALIMENTOS DE EUSKADI

El Gobierno Vasco, a propuesta de Beatriz Artolazabal, Consejera de Empleo y Políticas Sociales, ha aprobado hoy la concesión de una subvención directa por importe de 75.000 euros a la Federación de Bancos de Alimentos de Euskadi, para la financiación de las actuaciones previstas en el ámbito de los servicios sociales en el desarrollo del programa del Fondo de Ayuda Europea para las personas más desfavorecidas (FEAD) en la Comunidad autónoma de Euskadi

La Federación de Bancos de Alimentos de Euskadi está formada por los Bancos de Alimentos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, responsables de la ejecución y gestión del Programa FEAD en esta comunidad.

Educación

175.000 EUROS PARA AYUDAS A ESTANCIAS PREDOCTORALES

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy, ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la orden por la que se convocan ayudas para estancias en centros distintos al de aplicación del Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador.

Esta convocatoria, con un importe global de 175.000 euros, se dirige al personal investigador que sea beneficiario del Programa Predoctoral anteriormente citado. Estos investigadores e investigadoras mantienen una relación contractual con centros de investigación –universidades u organismos con capacidad y actividad demostrada en I+D+i- considerados centros de aplicación del Programa Predoctoral. No obstante, en numerosas ocasiones, y en el desarrollo de su labor investigadora, los y las investigadoras predoctorales han de realizar estancias temporales en otros centros distintos al de aplicación.

El Departamento de Educación convoca, por tanto, estas ayudas económicas con el objeto de conceder complementos económicos a todos aquellos beneficiarios del Programa Predoctoral que deban realizar desplazamientos o cambios temporales de residencia. Las estancias se podrán realizar en universidades, centros de investigación o de desarrollo tecnológico y en empresas con actividad de I+D+i, extranjeros o estatales, siempre que estén ubicados en una localidad distinta a la del centro de aplicación y suponga un cambio temporal de residencia que justifique la concesión de las ayudas económicas.

La finalidad de las estancias en centros distintos al de aplicación será la mejora de la formación en investigación científica y técnica de dicho personal mediante la realización de actividades de investigación, el aprendizaje de nuevas técnicas de aplicación al proyecto de investigación, y cualquier otra actividad de investigación que, en el contexto del proyecto de tesis en ejecución, redunde en beneficio de su formación científica y técnica e impulse el desarrollo de su tesis.